

Gure funtsezko baliabideak lau taldetan banatuko ditugu eta hurrengoak izango dira:

Baliabide fisikoak:

Aktibo korronteak bereziki makinak izango dira. Behin Dronaren piezak diseinatuta, hauek sortzeko makina asko erabiliko ditugu. Makina hauek teknologikoak izango dira adibidez: inprimagailuak, ordenagailuak, 3D inprimagailuak... eta gure tailerrean egongo dira konponketak egiteko.

Guzti hau lokal batean burutuko dugu eta denda fisikoak izango ditugu drona saltzeko. Gure aktiboak hauek izango dira: alde batetik, bulegoan mahaia, aulkiak, ordenagailuak... izango ditugu eta dendan berriz, apalak, kobratzeko makina, ordenagailua, biltegia... Horretaz gain, garraioak izango ditugu hala nola, kamioiak gure produktua zabaltzeko eta honen banaketa egiteko.

Aktibo ez korronteen artean biltegian izango dugun bulego materiala, dronak beharko dituzten ordezkio piezak eta konpontzeko materialak izango dira.

Baliabide intelektualak:

Gure baliabide intelektual bakarra patentea izango da. Gure dronaren mekanismoa patentatuko dugu guztiz berria izango delako gure taldeak diseinatuta. Horrela, gure lehiakideak ezin izango dute gure produktuaren diseinua eta mekanismoa kopiatu. Gehitzeko, sinatutako akordio ezberdinak eta hauekin lortutako eskubideak izango ditugu. Eta erabilitako programa informatiko guztiak.

Giza baliabideak:

Jabetzari buruz hitz egiten, gu izango gara jabeak. Guk enpresarekin zerikusia duen guztia kudeatu eta kontrolatuko dugu eta bestelako jarduerak onartuko ditugu. Hainbat motatako langileak izango ditugu. Alde batetik, ingeniariak izango ditugu enpresan, dronaren planoak, egitura eta piezak diseinatzeko.

Beste alde batetik, mekanikoak izango ditugu. Izan ere, tailer bat izango dugu dronak konpontzeko.

Azkenik, gure denda fisikoetan langileak eta antolaketa lanetan aritzen diren pertsonak kontratatuko ditugu.

Finantza baliabideak:

Hasierako ekoizpena egiteko, mailegu bat eskatuko dugu. Etekinak lortzen hasten garenean, salmenten bidez behar ditugun gastuetarako. Honekin batera, diru-laguntzak eskatuko ditugu gure proiektua aurrera eramateko, hainbat diru-laguntza daude gure antzeko proiektuentzat ingurumena zaintzeko proiektuak direlako, agenda 2030ko helburuekin bat datorrelako.